

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2025eko uztailak 4 · 1361 zenbakia



IRAKURZALETASUNAREN ARNASARI EUSTEN

MERKEALDIA
2MÓ 199€

lehen 239€
progresiboak
batzuk eguzkitakoak izan daitezke

Merkealdia egutegiaren arabera



MULTIÓPTICAS

943 20 05 22
Bidebarrieta, 2. EIBAR



eskatu hitzordua

www.multiópticas.com



gremioen gida



ANTENAK

ELEKTRIZITATEA

KRISTALAK

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

THELECEER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko
urgentziak
610 532 922 www.thelecer.com

ACHA Kristaldegia
J.A. GISASOLA, 4 - ac
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@cristaleriaacha.com
Tfnoa Faxa: 943 203 903

AROTZAK

IGELTSEROAK

PLAGEN AURKA



aluminiozko eta PVC-ko
AROTZEGIA
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txeruta, 30 - 1. eta behea
Tfnoa: 943 12 13 07 www.ulmar.net

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza
irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.
Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobear
goza dezazun
Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net


PLAGANATURA
PLAGEN AURKARI ERRETTZA SA
www.plaganatura.com
943 08 700
ELEGIBAR



943-206776

Jarraitu gaitzazu!

www.etakitto.eu



@etakitto



Hilaren 6tik 13ra saxofoia izango da protagonista Eibarren. Xabier Oruesagastik bultzatuta, Eibarsax egingo da herrian. Europatik etorritako zenbait ikasleek sorkuntza-egonaldia egingo dute eta doako zortzi kontzertu eskainiko dituzte, tartean askorentzat munduko saxofonista onenarena: Arno Bornkamp.



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eu

komunikabideak@etakitto.eu

publizitatea@etakitto.eu

aldizkaria@etakitto.eu

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eu

normalizazioa@etakitto.eu

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Jose Luis Gorostegi,

Silbia Hernandez eta Yanire

Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



(*...eta kitto!*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eskutitzak



Danborradako arduradunei, esker onez

Eibarko Danborradari gure esker ona adierazi nahi diogu, Gureak lantegia Eibarko mapan jartzeagatik. Ezin izan ginen denak karrozan joan, lantegia 180 lagunek osatzen dugulako, baina ordezkari onenak joan ziren.

Bereziki eskerrak eman nahi dizkiegu Juan Luis Baglietori, Rosiri, eta danborradako partaide eta boluntario guztiei. Gure eskerrik beroena baita Leire Kareagari ere, bere maitasun eta laguntzarengatik, eta Alberto Echaluze-ri, "mezulari" ona izateagatik.

Gora San Juan! Gora Eibarko Danborrada!

Gureak Eibar

Hortik esanak



Macroni bere emazteak aurpegian emandakoa... alderantziz gertatuz gero? Hau birala izan bada ere, bigarrenengoan eskandaluak beste neurri bat hartuko zukeen, hori seguru, dimititu behar izateraino agian. Badira emakumeak euren bikote gizonetzko erasotzen dietenak eta, batzuei barre eragiten badie ere, niri zipitzik ere ez. Horrelako kasuetan mina psikologikoa da gehienetan, eta hori gogorra da, baina badira erasotze fisikoak ere. Eta ditugun aurreiritzi sexistak gure gizartean hain handiak jarraitzen dute izaten gizon biktimak zigor bikoitza jasaten duela, erridikulutzat jotzen delako, hori ez badiote berari errua botatzen. Hori ere, jakina, matxismoa besterik ez da.

ROSA MONTERO, idazlea

Iruña-Veleiakoa mende honetan euskal kulturaren gertatu den eskandalu handiena da. Eta aztarnategia izorratzen ari dira hondeamakinaz. Salaketak jarri ditugu, baina alferrik; honen aurrean ere jende handia mutu. Hau gaitz handiago baten sintoma da. Gaurko gizartea gero eta akritikoagoa eta ezjakinagoa da, eta telebistan edo sare sozialetan agertzen denari begira dago ia soilik. Gu eta gu bezalakoak "frikia" gara. Garai batean, hemengo jende gehienak ez zuen bertsio ofizialik sinesten. Orain, berriz, egia ofizialak onartzen ez badituzu negazionista eta konspiranoikoa zara!

JUAN MARTIN ELEXPURU, idazle eta filologoa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PILLA → Pillo, mordoia. "Harri pillia batu eban ingurura etxia egitten ekin aurretik".

PILLATU → Batu, moltsotu, metatu. "Lelo arpegidun guztiak neuk pillatuko jittuat gure makiña horretara".



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 4
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ZAPATUA 5
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
DOMEKA 6
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 7
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
MARTITZENA 8
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUAZTENA 9
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUENA 10
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)
BARIXAKUA 11
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)

GAUEZ BETI, 2025ean,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- Mercedes Zamakola Gantxegi.
67 urte. 2025-06-28.
- Marini Orozko Maiztegi.
80 urte. 2025-06-29.



Bista Eder kaleko trafikoak Eibarko Txikito kaleranzko norabidea hartuko du.

Errekatxu inguruko trafikoa berrantolatu dute, eta aldaketak eragin ditu horrek

Eguaztenean sartu zen indarrean bide-antolamendu berria Errekatxu inguruan, bertako lanak amaitu berri dira-eta. Aldaketak auzoko hainbat kaleri eragingo die, Udalararen arabera “gune horretako mugikortasuna hobetu eta segurtasuna indartze aldera”. Eskema berriaren arabera, Bista Eder kaleko trafikoak Eibarko Txikito kaleranzko norabidea izango du, Migel Aginagatik eta Eulogio Garatetik igarota, amaieran Errekatxu-Arane bidean

sartzeko. Bide horretatik beherantz doazenez, berriz, bi aukera izango dituzte: Aranerantz jarraitu, edo ezkererantz, Bista Edererantz egitea, “horrela etxe-uhartean zirkuitu zirkularra sortuz”. Gune batek baino ez du izango noranzko bikoitza: Bista Eder kalea Arane-Errekatxurekin lotzen duen bideak, Errekatxu 2ko eraikin berriko garajearen inguruan. Neurri horrekin, Bista Eder eta Migel Aginaga kaleen bi aldeko noranzkoa desagertzen da.

Udaletxe azpiko arkuak zabaldu dituzte, EAJren udal taldeak eskatuta

Barixakuaz geroztik zabalik daude udaletxe azpiko arkuak, Udalak albo bietako sarbidea blokeatzen zuten panelak kendu ondoren, “Toribio Etxebarria eta Ego Gain artean oinezkoen mugikortasuna hobetzeko”. Horrela, herritar askoren eskaerari erantzun nahi izan diote. Ekimena Eusko Alderdi Jeltzalea buru duen Trafiko eta Mugikortasun Sailaren aurrekon-

tuan sartu da. Alberto De la Hoz Trafiko eta Mugikortasuneko zinegotziaren berbetan, “jeltzaleok defendatzen dugun hiri ereduari erantzuten dio. Eibar oinezkoentzat irisgarriagoa, erosoagoa, berdeagoa eta ibilgarriagoa izatea da helburua. Gainera, arkuei argitasun gehiago ematea lortu da, baita espazio hori aisialdirako topagune gisa egokitzea ere”.

Debako Marea Gora zikloak goi mailako hitzaldiak hartuko ditu eguaztenero

Esperientzia Eskolaren 18. promozioaren eskutik, Marea Gora hitzaldi-zikloaren 3. edizioa abiatu berri da. Aurreko urteetan bezala, interes sozial eta kultureko gaien buruzko hitzaldiak antolatu dituzte. Saio guztiak eguaztetenetan izango dira, 19:00etan, Debako Kultur Elkartearen, eta sarrera libre da. Datorren astean (uztailak 9) *Debako Arte Eskola, sorkuntza, eztanda eta Haur Adierazpen Tailerra* izenburuko emango dute Jose Mari Larramendik eta Mikel Mendizabalek; uztailaren 16an Xabier Irigoien Aztiko zuzendari zientifikoak *Zenbat arrain daude itsasoan? (Ekosistema mesopelagikoa, argi pixka bat itzalen gainean)* izeneko emango du; eta uztailaren 23an *Gizartearen psikiatrizarazioa eta etorkizunera begirada* izenburuari jarraituko dio Imanol Querejeta Donostia Unibertsitate Ospitaleko Psikiatria Zerbitzuko erretiratua, EHUko irakasle elkartua eta hedabideetako kolaboratzaile ohiak.





Bigarren edizioan parte hartu zutenen ikasturte amaierako argazkia.

Epaitegiak Eibarko Udalaren alde ebatzi du Errebal eraikinaren auzian

Errebal Plazaren obra amaitu zenetik Eibarko Udalak eta Errebal Eraikina Aldi Baterako Enpresa-Elkarteak (ABEE) zuten auziari amaiera eman diote epaitegietan. Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak ebatzi duenez, aitpatutako ABEE-ak 106.496 euro ordaindu beharko dizkio Udalari, obra 20 eguneko atzerapenarekin amaitzeagatik, konpentsazio gisa. Aurretik ere, iazko martxoan, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak ABEEak obra-amaieraren kontzeptuan Udalari eskatzen zion zenbatekoa murriztu zuen, ordaindu beharreko kopurua 159.407 eurotik 37.627 eurora jaitzita. Epaiaekin pozik dago Jon Iraola alkatea: “Garrantzitsuena da prozedura judiziala behar bezala itxi dela, eta alderdi teknikoak zein politikoak egindako lanari abala eman diola. Guk beti izan dugu argi ez genuela ordaindu behar enpresak eskatzen zigun guztia, eta Udala konpentsatu beharra zegoela obra egiteko izandako atzerapenagatik”.

Heldu! ekintzailatza programarako izen-ematea uztailaren 22ra arte egin daiteke

Uztailaren 22ra arte eman daiteke izena *Heldu!* Eibarko ekintzailatza programaren laugarren edizioan parte hartzeko. Ideia berritzaile bat izan eta bere enpresa-proiektua Eibarren garatu nahi duen edonork parte har dezake *Heldu!* Programan. Ekimena Eibarko Udaleko Ekonomia Garapen, Enplegu eta Berrikuntza Sailak sustatzen du, Debegesa garapen-agentziarekin lankidetzan, eta enpresa-asmobat dutenei lagundu eta gidatzeko dago pentsatuta. Proiektu parte-

hartzaileren hautaketan hauek dira lehenesten diren lerroak: doitasun ingeniariatza, industriari lotutako zerbitzuak, 4.0 industria, klima aldaketa eta energia jasangarria, eta kirolari aplikatutako teknologiak, bai eta berritzailetzat jo eta Eibarren gara daitekeen beste edozein ideia ere. Programa horren bidez, parte-hartzaileek 100 ordu baino gehiagoko prestakuntza eta aholkularitza jasoko dute, profesional adituaren eskutik. Informazio gehiago Debegesako webgunean duzue.

EIBARREN

GIDABAIMENA

EUSKARAZ

ATERATZEN BADUZU

100 €

-KO
EROSKETA-BONOA LOR
DEZAKEZU

INFORMAZIO GEHIAGO:
eibarrenakubad@gmail.com
943 706426 / 688 854 943



Errebalen kudeaketa gogor kritikatzten dute Errebal Bizirik plataformakoek.

Merkataritza dinamizatzeko bulegoa merkatu plazan zabaltzea "barregarri" ikusten du Errebal Bizirik plataformak

Lehen merkatal-jarduera zegoen tokian merkataritza dinamizatzeko bulego bat zabaltzea "barregarritzat" jo du Errebal Bizirik plataformak eta, salatu dutenez, "Merkatu Plaza ordezkatu zuen Errebaleko proiektua etengabe ari da diru publikoa xahutzen". Plataformatik diotenez, "Gobernu-taldeak argitaratzen dituen albisteek bere kudeaketaren porrota agerian laga baino ez dute egiten, eta porrot hori ezkututzen saiatzen ari dira, diru publiko gehiago xahututa". Elkarte horrek adierazi duenez, "Merkatu Plaza preziatu bat eraitsi ondoren, eta lehendik zeuden negozio guztiak bertatik bota eta gero, orain merkataritza dinamizatzeko bulego bat bertan jartzea erridikuluaren gaindia da. Errebalen kudeaketaren historia, 1999az geroztik, zentzugabekeria hutsa da, parekorik ez duena".

Errebal Bizirik-ek gogorarazi duenez, eraitsi zuten Merkatu Plazan arrandegi, harategi, fruta-denda, taberna-kafetegi, beste postu batzuk (izoztuak, okindegia, bakai-

lao-saltzailea, aterki-konpontzailea...), baserritarrentzako gunea, bulegoak (horien artean KIUB) eta bainu publiko ugari zeuden, "eta, era berean, Musika Eskola eta hiru kiosko ere eraitsi ziren (prentsaakoa, litxarrerietakoa eta ONCERena), jarduera ekonomiko horien guztien ordezkari beste taberna bat eta postu pare bat jartzeko. Hori da PSEk, gaur egungo alkatea buru dela, erantzun behar duen balantzea. Noizko herritar guztiei irekitako saioa, aurpegia emateko?". Plataformaren arabera, askok galdetzen diote bere buruari zein den dinamizatu nahi duten komertzio hori, "orain, plazan dendarik ez dagoenean? Lotsa gutxi izan behar da gero!".

Amaitzeko, gobernu-taldeak beste proiektu batzuk nola kudeatzen dituen ere kritikatu dute: "Aitortu behar dugu Iraola jauna kea saltzen artista dela, eta hori edonork egiazta dezake egingo direla agindu eta aldiari aldiari errepikatzen diren proiektuei buruzko albisteei jarraipena eginez gero".



Esperientzia Eskolarako matrikulazio-epea zabalik dago, urriaren 15era arte

Debabarreneko Esperientzia Eskolako matrikula egiteko epea zabalik dago 2025-26 ikasturterako, eta urriaren 15era arte eman daiteke izena, Pegora herritarrentzako harrera bulegoan. Ikasten Elkarteak antolatzen duen Debabarreneko Esperientzia Eskola 55 urtetik gorako lagunei zuzenduta dago, eta bertan formazioa eta parte-hartzea izango dituzte ardatz. Ikasturtea urriaren 21ean hasiko da, eta klaseak martitzen, eguazten eta eguen goizetan izango dira. Informazio gehiago nahi izanez gero, 695 788 936 telefono zenbakira deitu daiteke, edo www.ikasten.info helbidean begiratu.



143 zenbakiak irabazi du Sanjuanetako zozketa

Jaixak Herrixak Herrixandakok Sanjuanetan saldutako rifen zozketan, 143 izan da zenbaki saritua. Epe barruan irabazlerik agertu ezean, 445 ordezkari zenbakiarentzat izango da saria.

Probatu al duzu hapiick-en sortu dugun aplikazio berria?
Zuretzako edo edonorentzako objektuak lagatzeko:

tedejo




DOHAINIK eibartar guztiontzakol

Hurrengo QR kodea eskaneatu
eta aplikazioa deskargatu

Erabili dezakezu:

- Calbeton Vending
- Avia Kantoi
- Forum Sport Eibar



ii hapiick

Neinor HOMES

ARRATE HOMES · EIBAR



Ez utzi **aukera** hau pasatzen, bisitatu orain gure

PISU PILOTUA

2 logelako azken etxebizitzak | **3 logelako etxebizitzak eskuragarri**

Obra berriko etxebizitzak:

Gimnasioa · Gourmet aretoa · Garajea · Trastelekua

900 11 00 22 · **neinorhomes.com**

“Mugikorretako sare sozialen app-ek euren zerbitzura nahi gaituzte”

MAITANE ORMAZABAL • Psikologoa



Haurrek eta nerabeek mugikorrek duten harremanaren inguruan kezka sortu da azken urteotan. Hainbat gurasok, Eibarko Altxau Burua taldekoek bezala, gaiari adarretatik heldu nahi izan diote eta ekintzak jarri dituzte martxan zentzuzko erabilera sustatzeko. Zentzu horretan berebizikoa izan da gaian adituak diren Telmo Lazkanorekin eta Maitane Ormazabalekin egin duten elkarlana.

Lazkanok eta Ormazabalek ZEOS programa garatu dute eta, horren barruan, hainbat saio egin dituzte Eibarren, bai guraso eta irakasleekin, bai Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako ikasleekin. Psikologoak esan digunez, oso saio baliagarriak izan dira guztientzat eta datorren urtean ere hemen egoteko asmoa dute, egiteko bidea luzea baita oraindik.

ZEOS programaren barruan eskaini dituzue Eibarko saioak, baina zertan datza programa hori?

ZEOS-ek ‘Zentzuzko Erabilera eta Osasuna Saretzen’ esan nahi du. Telmo teknologietan da aditua eta ni gehiago alderdi emozionalean. ZEOS Programa udal-errietara edo ikastetxeetara eramaten dugunean, beti izaten da garrantzitsua lehenbizi helduak informatzea. ZEOS-en barruan lau saio daude: bik arlo teknologikoa eta digitala esplikatzen dute; eta beste biek alderdi emozionala, gaur egungo gazteen osasun mentalaren eta emozionalaren egoera zein den ulertzeko. Lehenik eta behin, saio irekiak eskaintzen ditugu guraso guz-

tientzat. Gero, ikastetxe bakoitzaren nahien arabera, irakasleei eta propio hango gurasoei ere eskaintzen diegu formakuntza. Ondoren, hirugarren fasean, ikasleekin egiten dugu lanketa. Eibarren ikastetxe guztiek hartu dute parte eta ederra izan da, belaunaldi guztiekin ahal izan dugu harremana eduki, informazioa eman diegu, eta horrela errazagoa da erreflexio puntuak edo espiritu kritikoa areagotzea. Guretzat 5. eta 6. mailakoekin, eta DBH 1eko ikasleekin, egotea izaten da garrantzitsua bereziki, ia denek mugikorra izaten dutelako eskuetan eta harkor agertzen direlako. Izan ere, gure helburua da eurak konturatzea produktua eurak direla eta ez garelako ari produktua erabiltzen, baizik eta teknologia mota horik erabiltzen gaituztela. Gainera, prebentzio lana egiteko, oso garrantzitsua da gutxienez 5. eta 6. mailakoekin egotea.

“Zentzuzko erabilera” aipatu duzu. Nolako izan behar-ko litzateke erabilera hori?

Zentzuzko erabilera egiteko, garrantzitsua da lehenbizi helduek formakuntza edukitzea. Askotan, gure txikiei mugikorra ematen diegunean, guk geuk ere ez



dakigu teknologia hauek nola erabiltzen gaituzten, ez dugu ulertzen nola funtzionatzen duten. Helduei esaten diegu mugikorra ez dela berez gauza ona edo txarra, baina mugikorra bada zerbait adiktiboa, gu mende egoteko prestatuta dagoena. Orduan, mendekotasuna eragin dezakeen zerbaitekin jarrera osasuntsua izaten saiatu behar gara. Zentzu horretan, adin tarte bateko jendeak ezin dio zentzuzko erabilera eman horrelako teknologiei, eta ezin dute gizakiak dituen berezko ezaugarriengatik. 45 urterekin ez badiogu zentzuzko erabilera ematen, nerabeek are gutxiago, hain justu ere teknologia hori zentzuzko erabilera ez emateko prestatuta dagoelako. Argi eta garbi laga nahi dugu ez gaudela teknologiaren aurka, ezta gutxiago ere, nik neuk asko erabiltzen dut, baina teknologia bat gizakiaren zerbitzura dago eta beste batek gizakia bere zerbitzura egotea nahi du. Mugikorrean ditugun sare sozialen aplikazio horiek euren zerbitzura nahi gaituzte eta, gehienbat nerabeak eta gazteak, beraien hauskortasunarengatik oso merkatu ona bihurtzen dira-eta. Beraz, momentu horretan zentzuzko erabilera ezin da eman, normala

den bezala. Helduok dugu ardura eta haur eta gazteak hezi egin behar ditugu. Pantaila aurrean jarri aurretik, pantailaren atzean dagoen informazio guztia eman behar zaie. Hortik aurrera, bakoitzak ahal duena egingo du daukan egoerarekin. Adiktiboa izan daitekeela jakinda, estrategia eta praktika pila bat ematen dizkiegu (notifikazioak eta koloreak kentzea, adibidez), eta horrekin beste erabilera bat egin daiteke.

Nolako errealitatea aurkitu duzue Eibarko saioetan?

Gozamina izan da bertan egotea. Niretzat errazagoa da gazteekin lan egitea helduekin baino (barreak). Epai-ketarik egin gabe eurekin jarduten baduzu, oso irekiak izaten dira. Askok gustatzen zait irakasleak ere ikasleen saioetan egotea, ikusteko zer esaten diedan, eta euretako asko harritu egin dira ikustean umeek zenbat dakiten mugikorrak oraindik eduki ez arren. Euren mundua da eta euren errealitatean hori guztia dago. Askotan uste dugu ez direla enteratzen, txikiak direla, eta ez, guztiaz enteratzen dira eta gehienek izaten dute mugikorra. Egia da Eibarren ikusten dela Altxau Buruak potentziala duela eta 6. mailan jende asko ikusten dela mugiko-



“Pantaila aurrean jarri aurretik, pantailaren atzean dagoen informazio guztia eman behar zaie gazteei”

rrik gabe. Informazioa ematen diegunean eta ulertzen dutenean enpresa hauek nola funtzionatzen duten, gozamina da nola erantzuten duten. Harritu egiten dira, ez dute hori ezagutzen. “Zergatik uzten diegu hau egiten?”, esan didate Eibarren. Eurak dira lehenengo belaunaldia hau guztia serio ikusten dutena. Helduok lelotuta gaude horrelako teknologiekin, euren mende gaude eta ez dugu hori ikusi nahi; baina, gazteek ikusten badute, beste erabilera bat emango diete eta, agian, produktu hauek osasuntsuagoak bihurtu beharko dira. **Saioetan egon diren ikasle batzuek mugikorra erabiltzen dute. Zer ikusi duzue zentzu horretan?**

Nolako mina jasotzen duten mugikorraren bitartez. Pila bat. Jasotzen dute eta egiten dute, nahi gabe. Nerabe bat ezin da kontziente izan min horretaz. Badakit guri asko kostatzen zaigula ulertzea, baina horregatik enpresa hauek eurei begira egiten dituzte aplikazioak. Enpresa hauen funtzionamendua erakustez gain, ondorio emozionalak erakusten dizkiegu eta bi alternatiba eman zerbait pasatzen bazaie: ahazteko eskubidea

eta lehenasunezko kanala. Gauza horiek apuntatzen dituzte eta formakuntza amaitzean horien inguruan galdetzeraz etortzen dira. Hor ikusten duzu eurek bizi izan dituztela egoera horiek. Badakit ez ditugula arazo nagusi bezala ikusten, baina Eibarren ikusi dudana bezala, WhatsApp eta Snapchat bezalako aplikazioetan gertatzen denak arduratzen nau. Euren GIF-ak egiten dituzte, sticker-ak, memeak... Modu inuzentean egiten dituzte eta ez dira konturatzen nolako mina egin ahal dioten beste bati eta baita euren buruari ere. Nik 16 urterekin zer egiten nuen inork ez daki, nire ingurukoek akaso; beraz, ahazteko eskubidea eduki izan dut. Hau da, gauzak egin eta berriz zerotik hasteko aukera. Gaur egun, osteraz, Internetekin, hori oso zaila da. Den-dena markatuta gelditzen da, sareetan dago, edozeinek albiste bat ateraz dezake... Ahazteko eskubide hori oso kaltetuta gelditzen da eta osasun mentalerako intimitatea edukitzea gako garrantzitsua da.

Gurasoekin egindako saioak nola joan dira? Nola jardun beharko lukete eurek?

Niretzat hemen dago gakoa. Mugikorraren auziak zerikusi handia du gizarte moduan bizi dugun egeorarekin. Horren isla da. Jendeak galdetzen digu ea gazteei zer gertatzen zaien, eta guk erantzuten diegu ea zer gertatzen zaigun helduoi. Hau da, zer gertatzen zaion arkitektura sozial guztiari gure seme-alabak horrela egoteko. Helduoi askoz ere gehiago kostatzen zaigu. Nire ustez, erruaren sententzia sentitzen dugulako da.

Erruak momentu baterako balio du, zerbaitez konturatzeko, baina hortik aurrera ez du ezertarako balio. Gure seme-alaben hezkuntza beti egin behar dugun gauza bat dela ulertu behar da, eta gauza bat gaizki egiten ari naizela konturatzeta eta aldatzen saiatzea demaseko aldaketa da, baina ikaragarri kostatzen zaigu hori egitea. Helduok oso despistatuta egon gara auzi honetan. Gazteak seinalatzen egon gara (“nolako belaunaldia”, “ez dakite ezer egiten”...), baina mugikorra nork eman die? Nork hezi die horretan? Guk esaten dugu umeak ez direla natibo digitalak, baizik eta umezurtz digitalak. Helduok ez dugu formakuntza digitala jaso eta mugikorra minik egiten ez duen gailu bat bezala ikusten dugu. Adin batetik aurrera oso erabilera praktikoa izan dezake, nik asko erabiltzen dut eta eskaparatea da niretzat, baina eskaparatea 45 urterekin edo 12rekin edukitzea ez da gauza bera. Orduan, helduak kontzientziatu nahi ditugu, baina erresistentzia gehiago aurkitzen dugu euren aldetik. Hori bai, Eibarren mugimendua dago, ikastetxe guztiek oso ondo hartu gaituzte eta baita helduek ere. Datorren urtean berriz itzuliko gara eta urteroko egitarauan finkatuta egoteko asmoa agertu dute. Izan ere, nerabezaroa oso sasoi garrantzitsua da

“Mendekotasuna eragin dezakeen zerbaitekin jarrera osasuntsua izaten saiatu behar gara”

eta guraso askok uste dute sasoi hori dela seme-alabek euren behar gutxien dutena, baina kontrakoa da, sasoi hori delako helduen behar gehien duten unea. Nerabeei helduak izatea eskatzen zaie eta emozionalki oso momentu hauskorra da eurentzat. Orduan, gu euren alboan egon beharrean, askotan gailu bat jartzen diegu eta orain konturatu gara, gauzak erraztu beharrean, gailuek egoera konplikatu egin dutela eta beharrezkoak gara. Helduoi hori ikustea asko kostatzen zaigu, erruduntasunetik ikusten dugulako, epaileak izango bagina bezala. Horregatik, gure formakuntzan kontrakoa egiten saiatzen gara: informazioa ematea, helduok zein garrantzitsuak garen azaltzea eta nerabeek zenbat behar gaituzten ikusaraztea, epaiketarik egin gabe.

ELKARRIZKETA OSOA: www.etakitto.eus



Saxofoi doinuek girotutako astea

BIDEOA



Eibarsax saxofoiaren nazioarteko jaialdia izango dugu herrian hilaren 6tik 12ra. Astebetez saxofoia izango da protagonista handia Eibarren eta bertan bilduko diren musikari eta artistek musika-tresna honek duen aberastasuna lagako dute agerian. Xabier Oruesagasti eibartarra dugu honen guztiaren atzean, bera izan baita ekimenaren bultzatzaile nagusia.

Musikari eibartar askok bezala, Oruesagastik Eibarko Musika Eskolan hasi zuen bere ibilbidea eta Ustekabe txarangan sartu zen oso gaztetatik. Azkar iritsi zitzaion fanfarreko presidente izateko ardura ere, saxofoiarekiko zuen pasioa hazten zen bitartean. Hortik bideratu zituen ikasketak eta 2019an Amsterdamera joan zen masterra egitera. Arno Bornkamp maisu handia ezagutu zuen han eta bertan erein zen Eibarsaxen hazia.

Oruesagastirentzat, “Arno Bornkamp munduko saxofonista klasikoa onena da”. Maisu handia izanik ere, urte hauetan eduki duten harreman estuari esker (“nire etxetik metro batzuetara bizi da”, esan digu Oruesagastik) lagun bihurtu da eibartararentzat eta hark eman zion nazioarteko jaialdia Eibarren egiteko bultzada. Erronka ez da makala izan eta, Juana Palop valentziarraren laguntzarekin, hemen dugu Eibarsax.



Doako zortzi emanaldi

Antolakuntza lanetan ibili dira, baina ezin albo batera laga musikari handiak direla eta hiruren arteaz gozatzeko aukera izango dugu egun hauetan, beste hainbat artista handirekin batera. Izan ere, hilaren 6tik 12ra zortzi ikuskizun eskainiko dituzte, guzti-guztiak doan. Beraz, aforoa bete arte, edonor sartu ahal izango da ikuskizunez gozatzera (iraupena 45 eta 60 minutu artekoa izango da).

Lehenkontzertua Oruesagastiren eskutik helduko da, hilaren 6an, 20:00etan, Portaleko erakusketa gelan. Eibartarrak Catarina Paiva dantzaria izango du lagun eta proposamen berezia ekarriko digute, zuzenean sortuko den musika eta koreografiak eskainiko baitituzte, “batak bestea zapaldu barik, formatu berri, poetiko eta zuzena sortuz”, Oruesagastiren berbetan.

Hilaren 7an, 20:00etan, Azitaingo parrokiari Xavier Larsson arituko da, Suediako Errege Operako bakarlaria. “Oso saxofonista birtuoso da, oso berezia”, eibartarraren berbetan. Kontrastez betetako kontzertua izango dela aurreratu digu eta, jotzeaz gain, abestu ere egingo duela.

Hurrengo egunean, ordu eta toki berean, Juana Palop egongo da. “Esenako magnetismoagatik ezaguna, lirismoz eta edertasunez beteriko kontzertua eskainiko du. Programa goxo eta dotorea, belarria goxatzeko eta lasaitasunez entzuteko”, Oruesagastiren ustez.

Hilaren 9an Portaleara joko dugu berriro, Sara Zazok ikuskizun berezia eskainiko baitu 20:00etan. Saxofoia eta elektronika uztartuko



Arlo Bornkamp saxofonista handia izango dugu Eibarren. EIBARSAX

>>> Eibarsax nazioarteko saxofoi jaialdiaren lehen edizioa uztailaren 6tik 12ra egingo da

ditu Madrilan jaio eta Badajozen hezi den saxofonistak.

Eibarsaxen kartel-burua ikuste-ko aukera hilaren 10ean iritsiko da. Azitainen, 20:00etan, Arno Bornkamp zuzenean entzuteko aukera izango dugu eta, Oruesagastik esan digunez, “kontzertu berezia eskainiko du”, Bornkampen ‘Saxophone Sonatas’ disko “mitikoak” 35 urte betetzen dituen honetan.

Hilaren 11n, 20:00etan, Azitainen, Hezkuntza Esparruan sorkuntza-egonaldia egingen arituko diren



Sara Zazok saxofoi doinuak musika elektronikoaren uztertuko ditu bere ikuskizunean. SARA ZAZO

ikasleen esku egongo da emanaldia. Eibarsaxeko ikasleek Tobias Borsboom pianistaren laguntza jasoko dute eta euren talentua deskubritzeko aukera izango da.

Azken egunean, 12an, saio bikoitza izango dugu. 12:30ean, Azitainen, Tobias Borsboom pianistak “musika-oasi” bat eskainiko du, Oruesagastik esan digunez. “Ravel eta Godowskyren obrak joko ditu goizerako girotutako kontzertu labur eta argitsuan”. Eta amaitzeko, 19:00etan, Errebal Plazan, Eibarsaxeko ikasle eta irakasle guztiak igoko dira oholtzara jaialdia borobiltzeko, Bornkamp pieza batean bakarlari izango delarik.

Sormen-egonaldia

Aipatu bezala, Europako toki ezberdinetatik etorritako musikari gazteek sormen-egonaldia egingo dute Hezkuntza Esparruan hilarren 6tik 13ra. Bertan, Eibarsaxeko artista gonbidatuak izango dituzten irakasle (saxofonistak eta baita Catarina Paiva dantzaria ere) eta ikas-

>>> Europatik etorritako ikasleek sorkuntza-egonaldia egingo dute Hezkuntza Esparruan

>>> Maila goreneko zortzi ikuskizun eskainiko dituzte, doan, saxofoia protagonista izango delarik

leek gorputz-soinu tailerrak jasoko dituzte, ganbera entseguak izango dituzte eta artista handiekin solasaldi irekiak egiteko aukera izango dituzte.

Zentzu horretan, eta kontzertuak eskainiko dituzten artistekin gertatzea nahi duten bezala, Eibarsax saxofonista gazteentzat erreferentziatzeko gune bihurtzea nahi dute. Horretarako, musika-tresnak perfektionatzeko, sormena eta ikuspegi artistikoa lantzeko, eta musika sortzearen esanahiaren inguruan hausnartzeko aukera eskainiko dute, besteak beste.

Era berean, eibartarrei aukera eman nahi diete saxofoiaren mundua hobeto ezagutzeko eta berarekin konektatzeko. “Eibartarrak protagonista sentiarazi nahi ditugu. Horrela, kontzertuen amaieran musikariak bertan egongo dira eurekin solasaldia egiteko aukera eman. Ikusiko dute, musikari handiak izateaz gain, pertsona arruntak eta oso jatorrak direla”, dioSKU Oruesagastik.



Alfonso XIII.aren plazan (oraingo Untzagan) zegoen musika kioskoa Beasaingo Udalak erosi zion Eibarkoari, 1929. urtean, diotenez, N-634 errepidea zabalagoa egiteko traban zegoelako.

Eibarko gerra ondorengo bere auzoko San Pedro jaiak aipatzen ditu. Euskal giroa egoten zen: bertsolariak, azoka.... Sanjuanetan Untzaga plazako kioskoan jendeak kantuan egiten zuen. San Juan surik ez zen behin ere egiten. San Juan egunean dantza eta "tiobiboak" izaten ziren.

San Pedro eta San Juan jaiak

Benigna Sarasketa Maiztegi
(1922 – 2018)



Eibarko Jardinetan kalean jaio zen eta han egin zuen bizi guztia. Jardinetan kalean lau etxe besterik ez zeuden garai hartan. Bere osaba Kruzetaneko zineko langilea zen, eta ondo gogoratzen ditu antzokia eta gerra aurreko pelikulak. Gerra garaian Bilbora eta Valentziara joan behar izan zuen bere familiarekin. Alberic-en pasa zituen bi urte inguru, errepublikazaleen arma-fabriketan lanean, beste hainbat eibartarrekin batera.

Benigna Sarasketari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

Gerra aurrian San Pedro izaten zan behian. Sanjuanak izaten ziran goiko partez, eta San Pedro izaten zan beheko kalian, Urkusuan izaten zan San Pedro. Gerra aurrekuak baiño, gehixago akordatzen naiz gerra osteko sanpedruak. Parkia ta... orduan ez zeguan parkerik, errekia zan-ta, gure sasoixan errekia zan. Orduan ez dakit zelan zelebratzen ziran sanpedruak beheko parkian, ez naiz akordatzen hori. Baiña gero, gerra ostian ha kubridu eta egin ebenian, ba beheko parkian sanpedruak, hantxe beti! [Ta zelakuak izaten ziran?] Honbreeee! Bueno, baiña generalmente euskalduna izaten zan gehixago, edo bertsolarixak, edo ganauak... halako zerak izaten ziran (...) Ta sanjuanetan goixan. Ta gaiñera kioskuan, eguan musika kioskuan Eibarren, ez dakit nik ze demoniotan desaparezidu dan ta zergaittik ez daben ipiñi! (...) San Juan egunian kantatzen zan kioskuan, danak, plaza guztiak kantatzen genduan (...).



Yraolagoitia bizirik, sasietan nahaspilatu aurretik



Orain dela bi hilabete inguru erdi-umezurtz geratu ginen Eibarren. Yraolagoitia liburu-dendak atekak itxi zituen eta mota horretako establezimendurik gabe geratu ginen herrian. Internet bidezko salmenten eta kontsumo ohitura berrien garaipena zirudien, baina komikietako heroi baten modura, Biktor Molinero herriko liburu-denden erreskatara etorri da eta berriz zabaldu ditu dendaren atekak.

BIDEOA



Biktor Molinerok betidanik izan du irakurtzeko zaletasuna eta hori nabarmen geratzen da agerian minutu batzuetan berarekin berba eginez gero. Hain zuzen ere, liburuekiko duen pasio horrek eraman du Yraolagoitia liburu-denda hartzera. “...eta kitto!-n eta beste zenbait hedabidetan ikusi nuen Yraolagoitia itxi egingo zutela eta pena eman zidan. Eibar moduko hiri bat ezin da liburu-denda barik egon. Gainera, bidea galtzen bada, sasiz beteko da eta ez da berriz itzuliko”, Molineroren berbetan. Beraz, bidea sasiz bete aurretik, dena hartzea erabaki zuen. “Adin bat daukat eta ez dakit zenbat denbora egingo dudan hemen, baina bidetxo bat eginda laga nahi dut”.

Yraolagoitiak astelehen arratsaldean hasi zuen etapa berria eta martitzen eguerdian mugimendu polita zegoen bertan. “Jendeak dendaren falta botatzen zuen. Jendeari liburuak gustatzen zaizkio. Askok esan didate liburu-denden usaina gustatzen zaiela”, diosku dendariak. “Liburu elektronikoak hor daude, baina ez da gauza bera. Etxean 15.000 liburu ditut! Horietako batzuk hona ekarri ditut”, esan digu barrezka.

Idea berritzaileak

Yraolagoitia izenari eutsi dio Biktor Molinerok, baina dagoeneko bere eskua nabari da liburu-dendan. “Poesia liburuak jarri ditut, euskarazko liburuaren eskaintza ere indartu nahi izan dut... Hainbat ideia ditut buruan, ea aurrera egiteko aukera dudan horiekin”, aurreratu digu. Hala nola, komikiak saltzeko asmoa du, Haikuak egiteko ikastaroak eskaini nahi ditu, irakurketa-klubak jarri nahi ditu martxan (zientzia-fikziozko liburuena, literatura garaikidearena eta poesiari buruzkoa), umeentzako eta

helduentzako ipuin eta poesia lehiaketak egin... Azken neurrian, irakurzaletasuna bultzatzea eta Yraolagoitia literaturaren elkargune bihurtzea da Molineroren asmoa. “Eta ideia hau agian zoroa irudituko zaizue, baina podcast bat ere egin nahiko nuke. Poesia eta ipuinak irakurtzeko, liburuen inguruan jarduteko...”, diosku Molinerok.

Liburu bereziak aurkitu daitezke Yraolagoitian (adibidez, Argentinako lagun baten editorialekoak), baina baita azken nobedadeak ere. Umeentzako liburuak eta koadernoak ere badaude, eta baita papertegi batean erosi daitezkeen hainbat gauza.

Eta noski, bezeroak aintzat hartu behar ditu eta atsegin handiz artatu ditu dendan lehen egun hauean. “Oraindik dendari eskua hartzen ari natzaio. Batzuetan ez da hain erraza jakitea jendeari zer gustatzen zaion. Ez da salmenta datuak ikustea eta kitto, beste kontu bat da. Aurrez aurreko harremana edukiz gauza gehiago ateratzen dira eta hor hartzen da benetako pultsua”, kontatu digu Molinerok. “Liburuak aholkatzea zaila da. Bakoitzari zer gustatzen zaion galdetu ahal diot, niri gustatzen zaidana aipatu, eta azkenean elkartruke horretatik asko ikasten du gutako bakoitzak. Hori bai, gustatzen zaienean asko igartzen da. Burutik baino, beste toki batetik dator gustu hori: norberaren barrenetik, tripetatik edo bihotzetik”.

Martitzen eguerdian egon ginen Yraolagoitian eta, denda zabaldu berri bazegoen ere, Molinerok esandakoa berresten zuen bertan ikusi genuenak. Liburuak erosteko asmoz gerturatutako hainbat bezero egon ziren eta den-denei arreta berezia eskaini zien dendariak, euren gustu eta nahiak entzun eta, hori jakinda, liburuak gomendatuz. Liburuak dendan badiu, bikain, eta bestela eskatzeko aukera ere badago.

Yraolagoitian sartu ziren beste batzuek, ostera, beste asmo batekin egin zuten bisita: liburu-denda zabaltzeko hartutako erabakiagatik eskerrak eta animoak emateko. Azken batean, liburuen zale askok oraindik ere liburuen usaina, hauek ukitzea eta literaturarekiko pasioa partekatzea estimatzen dute, eta toki hori Yraolagoitian aurkitu dezakete. Molinerok sasiak moztu ditu, Eibarren literatura loratzeko haziak ereitea besterik ez zaigu geratzen.



Ateak itxi eta bi hilabete inguru pasata, Yraolagoitia liburu-dendak ateak zabaldu ditu berriz Biktor Molineroren eskutik



Batek baino gehiagok eman dizkio eskerrak eta, era berean, animoak Biktor Molinerori Yraolagoitia zabaltzeagatik. EKHI BELAR

“Teknimap-ek landutako proiektuak EAeko lurzoru kutsatuen tratamenduari erantzun nahi dio”

FELIPE GUIASOLA • Teknimap enpresako zuzendaria



Eibarko Teknimap enpresak orain dela gutxi jaso du Bizkaia Lurra saria, ingurune naturala babesteko eta berreskuratzeko ekimen berritzaileak nabarmentzen dituen saria. Kutsatutako lurzoruen tratamenduarekin eta berreskurapenarekin zerikusia duen proiektu aitzindari batengatik saritu dute enpresa eibartarra. Felipe Guisasola zuzendariarekin hitz egin dugu, proiektu hori, Teknimap-en ibilbidea eta euskal industria-sareko ingurumen-erronkei buruz duen ikuspegia gertutik ezagutzeko.

Industriaren eta ingurumenaren arteko harremana, aspaldidanik, erronka handienetako bat da garapen-eredu iraunkorrago baterantz aurrera egiteko. Testuinguru horretan, egoitza Eibarren duen Teknimap bezalako enpresek funtsezko zeregina betetzen dute. Ingurumen-aholkularitzan espezializatua, Teknimap-ek hiru hamarkada baino gehiago daromatza industriei eta administrazio publikoei irtenbideak eskaintzen, bereziki kutsatutako lurzoruen kudeaketan, ingurumen-ebaluzioan eta inpaktu-azterlanetan. Felipe Guisasola zuzendariaren berbak jaso ditugu.

Teknimap-ek Eibarko zigilua du, zalantza barik. Noiz jaio zen eta nolakoa izan da bilakaera?

Taldea eibartarrez eta inguruko herrietakoez osatuta dago; 20 lagun inguru gara. Ni ere Eibarkoa naiz, baina aspaldi bizi naiz Hondarribian. Teknimap Eibarren jaio zen 1993an, Tekniker eta Mapfreren eskutik. Gure jarduera-eremua ingurumena da: aholkularitza, zaintza eta ikuskapen lanak egiten ditugu. Orain dela 32 urte hasi ginenean, apenas hitz egiten zen ingurumenaz, eta gu "arraro" samarrak ginen. Harrezkero ingurumenak bilakaera handia izan du. Gauzak horrela, orain dela 10 urte hausnarketa sakona egin genuen. Eta argi ikusi genuen industriak ingurumenean eraginda-

ko arazoei irtenbideak emateko lan egin nahi genuela; aholkularitza enpresa bat izateaz gain, gure bezeroen ingurumen-portaeretan lagundu nahi genuela, eta gure hazkunde estrategia aliantzetan oinarrituko genuela. Konfiantzan oinarritutako aliantzak lortzea ez da erraza izaten, eta harro esan dezakegu lortu dugula enpresa desberdinekin elkarlana egitea. Bost konpainiarekin ditugu aliantzak: Ecodesign (ekodiseinua eta ekonomia zirkularra), Sondar eta Sondarlab (emisioen kontrola eta airearen kalitatea), Odournet (soluzio olfatometrikoak), Axioma (akustikoa) eta Talantia (lurzoruak konpontzea). Aliantza horiei esker, akreditazio-irismena handitu dugu eta, horrela, ikuskapen-zerbitzu guztiak eskaini ditzakegu.

Zeintzuk dira gaur egun bezeroek gehien eskatzen dizkizueten zerbitzu edo jarduera nagusiak?

Orain asko mugitzen ari da karbono-aztarnaren gaia. Enpresa batzuek legez karbono-aztarna kalkulatu behar dute, eta beste batzuk borondatez egiten ari dira, euren ingurumen-portaera hobetu nahi dutelako. Orain deskarbonizazioa enpresa handian dago, baina enpresa txiki eta ertainetara eta gizarte osora iritsiko da azkenean. Eta puri-purian dagoen beste gai bat ingurumen-aztarnaren kalkuluarena da, hau da, enpresak ingurumenean sortzen duen inpaktuaren kalkulua. Gero eta



Teknimap-eko Felipe Guisasola, Nerea Salaberria, Mireia Ugarteburu eta Cesar Fernandez Lurra Bizkaia Sarien banaketa-ekitaldian.

kontzientziario handiagoa dago, eta Euskadin abantaila handia dugu. Zorionez, oraindik ere Euskal Herrian hemengo enpresariak diren enpresa asko daude, eta horrek kontzientziatuago egotea eragiten du. Bestalde, bezero askok, halaber, euren produktuaren bizi-zikloa aztertu nahi dute, zein den ingurumen-inpaktua sortzen denetik amaitzen den arte.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak eta Deia egunkariak antolatutako Lurra Bizkaia Saria 2025 jaso duzue, Talantia enpresarekin batera bultzatutako Aris proiektuan parte hartzeagatik.

Landu dugun gaia puri-puritan dago, baina, hala ere, sorpresa handia izan da. Proiektuak Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoru kutsatuen tratamenduari erantzun nahi dio. Ildo horretan, EAeko lurzoruaren % 1,3 kutsatuta egon daitekeela kalkulatu da, neurri handi batean kea, burdina eta obra-hondakinengatik. Lur azpian ezkutatutako 13.000 futbol zelai baino gehiagoren pareko azalera litzateke hori. Euskal industriandarean, Eibarkoa kasu paradigmaticoa da. Aurreko mendeko 60ko eta 70eko hamarkadetan, ia etxe guztien azpian tailer bat zegoen eta, beraz, potentzialki kutsatutako lurra. Ekografia batean bezala, Arisek erabiltzen duen teknologiak kutsatuta egon daitekeen luraren bereizmen handiko irudiak lortzea ahalbidetzen du.

"60ko eta 70eko hamarkadetan, Eibarren ia etxe guztien azpian tailer bat zegoen eta, beraz, potentzialki kutsatutako lurra"

"Ekografia batean bezala, Arisek erabiltzen duen teknologiak kutsatuta egon daitekeen luraren bereizmen handiko irudiak lortzea ahalbidetzen du"

Kokaleku bateko kutsadura non dagoen identifikatu eta mugatzen da. Beraz, eskabatzeko edo tratatzeko orduan dena askoz ere mugatuagoa dago. Eta kutsadura hori *in situ* tratatzeko aukera ematen dizu, material hori kentzea beharrezkoa ez denean. Horrek laguntzen du material gutxiago bidaltzen zabortegietara. Gainera, kutsatzaileen kontzentrazioa aztertzen duten gas-dehtagailuak ditu.



Deporreko ordezkariak hainbat txapelketetan eman dute maila dagoeneko.

Palafrugellen, Gasteizen eta Arrasaten lehiatu dute herriko atleta federatuek

Palafrugellen jokatuako selekzio autonomikoen arteko 18 urtez azpiko txapelketan parte hartu zuen Elene Arrazola Klub Deportiboko atletak brontzezko domina eskuratu zuen 100 metroko proban, haizea kontra izanda ere 12.35 segundoko denbora eginez. Arrazolak parte hartu zuen baita 4x100 metro errelebo mistoko proban ere, selekzioa zortzigarren postuan sailkatuz. Sailkapen orokorrean euskal selekzioa zazpigarren geratu zen.

Gasteizen jokatuako 16 urtetik beherako Euskadiko Txapelketan bi izan ziren Deporreko ordezkariak, biak ere podiumetik ezin gertuago geratzeko, laugarren postuan sailkatu baitziren. Elene Beitiak 100 metroko bere seriean 13.60 segundoko denbora egin zuen eta Haizea Magunazelaia 23 metroak gainditu zituen xabalina jaurtiketan.

Azkenik, Arrasateko Mojategi pistan jokatuako Parte-hartze Libreko proban Deporreko laukote bat izan zen parte hartzen: Anwar El Hassouni hirugarren izan zen 1.500 metroko bere seriean, 4:01.30eko denborarekin bere marka pertso-

nala eginez; eta Naia Kapelastegik, Nerea Aizpuruk eta Farah Chajranek abiaturako probetan hartu zuten parte, 100 metroko euren serie-tan bosgarren izateko lehenengo biek eta zazpigarren hirugarrena.

Asteburuan Espainiako bi lehia

Zapatuan eta domekan Espainiako 18 urtez azpiko eta 23 urtez azpiko Espainiako txapelketak izango dira jokoan: lehenengoa Castelló de la Planan eta bigarrena Badajozen. Castellón Elene Arrazola izango da Deporreko ordezkaria eta itxaropentsu doa, abiaturako 100 metroko proban aurten bost marka onenen artean kokatu duelako bere burua (11.88).

Badajozen klubak izango duen ordezkaritza bikoitza izango da eta, gainera, euretako bat txapela janzteko helburua izango duena. Imanol Egidazuk estatuko bigarren markarik onena du (7.176 puntu) dekatlo proban, hortik bere itxaropenak; eta Garoa Magunazelaia ere aurten hamar xabalina jaurtitzaile onenen artean sartu da, 39.30 metroko markarekin.

Alberto Ferreiro berriro garaile Eibarko Squash Txapelketan

Ipurua kiroldegian jokatuako Eibarko Squash Txapelketaren 21. edizioa Euskal Rankingerako baliagarria ere izan zen eta, modu horretan, EAE osoko jokalaririk bildu ziren bertan, nafar jokalaririk batzuekin batera, eta Euskadiko Squash Federazioko klub guztiak egon ziren ordezkaturik. Alberto Ferreiro eibartarrak lehendik ere irabazi du sari hori eta oraingoan Unax Merino gasteiztarrari irabazi zion finalean. Klub Deportiboko beste bi ordezkariak ere hartu zuten parte torneoan eta, Sergio Salgadok bosgarren postuan amaitzeaz aparte, Jon Losada 17. postuan sailkatu eta kontsolazio txapeladuna izan zen. Podiumak honakoek osatu zuten: gizonetakoan, Alberto Ferreiro (CD Eibar), Unax Merino (FreeSquash Gasteiz) eta Fran Serrano (Benedikta Sestao); emakumetakoan, Ione Iturria (Lur-Alai Irun), Nagore Cirion (Benedikta Sestao) eta Mariana Olin (Nafarroako Unibertsitatea). Topaketa bat ere antolatu zen gazteekin, bertan parte hartu zuten sei jokalarirekin.



Gros A xake taldeak irabazi zuen Kruzetaren omenezko 39. edizioa

Aurreko zapatuan Untzagan jokatutako Jose Mari Kruzetaren omenezko 39. Eibarko Hiria xake txapelketa donostiarren eskuetara joan zen beste behin, oraingoan 16 talde hartu zituen lehiaketan ondo nagusituz Suizo sistemara jokatutako 15 txandetan. Ikuslearentzat norgehiagoka biziak eskaintzen dituen modalitate horretan, Gros X.T. A taldeak 56 puntu eskuratu zituen, Errenteriako Fomento Cultural bigarrenari ia zortzi puntu aterata (48,5) eta Beasaingo Alfil hirugarrenari 12 puntu (44). Podiumetik gertu geratu zen gure herriko Deporrek A taldea (39,5 puntu), Mar-



tintxo, Abadiño eta Barakaldoren aurretik. CD Eibar B 13. postuan sailkatu zen (19,5 punturekin) eta

CD Eibar C azkena izan zen, nahiz eta "esperientzia garrantzitsua pirlatu zuen".

Pirinioetarako irteera antolatu dute uztailaren azken astebururako

Eibarko Klub Deportiboko mendi batzordeak, Elgoibarko Morkaiko mendizale elkartearekin batera, Pirinioetarako irteera antolatu du, hilaren 25etik 27ra arte iraungo duena. Aran eta Luchon bailaretan zehar ibiliko dira, tartean 3.109 metroko Maupas mendira igota. Lehenengo egunean, barixakuan, 16,7 kilometroko ibilbidea egingo dute, Portilhon eta Venasqueko aterpea lotuz, bidean Tuc dera Escaletatik pasatuta. Bigarrenetan, zapatuan, Venasqueko eta Maupaseko aterpeak lotuko dituzte 12,6 kilometroko bidea eginez. Azken

egunean, domekan, Maupaseko aterpetik Valée du Lys-eraino joango dira, tartean aipatutako Pic du Maupas eginez.

Prezioei dagokienez, bazkide federatu + FEDME kasuetan 205 euro ordaindu beharko dute, federatuak izanik baina FEDME gabekoei 228 euro, eta bazkide ez direnei 230 euro lehenengo kasuan eta 255 bigarrenetan. Prezioan bidaia eta aterpetxeetako afariak, logelak eta gosariak sartzen dira. Izena emateko Klub Deportiboko web orrira jo dezakezue edo bertako bulegotik pasatu.



Eibar Rugby Taldea seigarren izan zen Espainiako 7-ko txapelketan

Gure herriko emakumezkoen taldeak 6. postuan amaitu zuen asteburuan Sevillan jokatutako Rugby 7ko GPS Espainiako Txapelketaren hirugarren eta azken fasean. Zapatuko jardunaldian, eibartarrek 10-7 galdu zuten Mostoleseko Jabaten aurrean eta 24-5 Sant Cugatekin. Behin domekako jardunaldian sartuta, eta 5.etik 8.erako postuan jokoan zirela, Eibar RT-koek 22-12 irabazi zieten bezperako Jabatei, baina azkenean A Coruñaiko CRAT-ekin 31-12 galdu ondoren, meritu handiko seigarren postuan sailkatu ziren. Taldeko teknikariek positiboki baloratu dute armaginek egindako lana eta Javier Aguado entrenatzaileak gazteenen maila azpimarratu du. Ea datorren denboraldian berriro Ohorezko Maila berreskuratzeko balio dien.

SD Eibarko lehen taldeak lanera itzuliko dira hilaren erdirako

HyperMotion Ligan jokatu duen gizonetzkoen lehen taldeak datorren asteko eguaztenez, uztailaren 9an, hasiko ditu entrenamenduak, aurreko bi egunetan kontrol medikuak egin ondoren; ligari, bestalde, abuztuaren erdialdean, 16/17ko asteburuan, ekingo diote jokalariek. F Ligan jokatu duen emakumezkoen lehen taldea, bestalde, sei egun geroago, uztailaren 15ean, bueltatuko da entrenamenduetara. Horien kasuan, Liga abuztuko azken asteburuan abiatuko dute, 30/31ko horretan. Iazko aurre-denboraldiarekin parekatuz, talde batek zein besteak entrenatzaile berriekin ekingo diote denboraldiari; hori bai, gizonetzkoen taldeak aurreko denboraldiko bigarren zatia Beñat San Joseren aginduetara egin zuen, beraz hor jarraipen bat izango da. Emakumezkoen Iñaki Goikoetxeak orain hasiko du bere egitekoa, azken denboraldia Yerai Martinen aginduetara amaitu baitzuen taldeak.

Liga hasteko, Malaga eta Sevilla

Abuztuaren amaieran (30/31ko asteburua) hasiko den F Ligan, SD Eibar-ek etxean abiatuko du lehiaketa, Ipuruan Sevilla hartuta. Ondoren Madrid CFF bisitatuko du eta Levante Badalona hartuko Ipuruan. Derbiei dagokionez, Realaren aurkakoak urriaren 19an (etxean) eta urtarrilaren 25ean (Donostian) izango dira, eta Athletic-en kontra-koak azaroaren 9an (Bilbon) eta otsailaren 22an (etxean). Bartzelona ahalguztiduna urriaren 5ean pasatuko da Ipuruatik.

Aurretik, abuztuaren erdialdean, hasiko da 2. Mailako edo HyperMotion Ligako lehiaketa. Hor SD Eibar-ek Malagan hasiko du denboraldia (16-17ko asteburua), on-



Realetik etxera itzuli den Jon Magunazelaia hiru urterako kontratua sinatu du.

doren Granada hartzeko Ipuruan eta Huescara bidaiatzeko jarraian. Real B edo Sanseren aurkako derbiak irailaren 21ean (etxean) eta apirilaren 1ean (Donostian) izango dira.

Aldaketak taldeetan

Talde biek izango dituzte pisuzko aldaketak abuztuan hasiko duten Liga lehiaketetarako. Batez ere, emakumezkoen taldean askok amaitu zutelako euren ibilbidea, baina gizonetzkoen ere urteak zeramatzenak joan dira taldetik.

F Ligako taldera dagoeneko etorri dira bost jokalar berri: bi denboralditarako kontratua sinatu dute Osasunatik datorren Elena Valej erdilari zaragozarrak eta Realetik

datorren Ane Etchezarreta atzelariak, eta bakarrerako kontratua egin dute RDC Espanyotetik datorren Iara Acosta aurrelari nafarrak, Cacerenotik datorren Adela Rico erdilariak eta Real Madrid B taldetik datorren hegaleko Sara Martinek.

2. Mailako taldeari dagokionez, Jon Magunazelaia etxera bueltatu da Realetik, hurrengo hiru denboraldietarako sinatuz. Berarekin batera, Mirandesetik datorren Luis Lopez atezaina eta Bartzelonako bigarren taldeko Aleix Garrido dira taldera bildu diren azkenak.

Aldaketak taldeetan

SD Eibar-ek berdez eta zuriz jantziko du berriro 2025/26 denboraldirako bigarren janzkera gisa, garai bat markatu eta armaginen zaleengan arrastoa laga zuen kamiseta berreskuratuz. 2004/05 denboraldiko eredu ikonikoan oinarrituta, Mendilbarrek zuzentzen zuen taldeak 1. Mailara igotzeko aukera izan zuten, elastiko berria Hummel kirol-markaren diseinu berri batekin eguneratu da, klubaren historian gehien gogoratzen den janzkerari omenaldia egiteko. Kamiseta horrek zerrenda berde horizontalak zituen, apurtzailea, eta arrakasta handia izan zuen.



Historia eta harrotasunari eutsiz, SD Eibar ekipazio txuri berdera itzuli da.

**Maria Jesus
Arrizabalaga Echave
(JUAN MURGIZUREN ALARGUNA)**

2025eko ekainaren 11n
hil zen Alacanten



Eibarko zure lagunok
EZ ZAITUGU AHAZTUKO




**Carmen
Gabilondo San Martin**

2025/06/24



**Eskerrik asko,
AMA**



Mertxe Zamacola Ganchegui

**Hainbeste asmo eta plan zenituen.....
Zergatik iritsi da zure ordua
hain azkar?**

**Zure mendiko lagunok ez zaitugu
inoiz ahaztuko.**

FUNEUSKADI
Sinplea, kalitate



TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funerariak



FUNERARIA MUGICA
Tanatorio, Crematorio
Bepi y Alta Care

**TANATORIO CREMATORIO
ELGOIBAR**

**24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com**

<p>Eibar: Oraola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xivilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marques de Valdespina, 16</p>
---	--

**Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao**



**M^a Mercedes
Zamacola Ganchegui**

2025/06/28

*"Gaur banandu egin behar
gara, baina badakigu gure
ondoan jarraituko duzula,
zure maitasuna gure
bihotzen jabe egin delako"*

**BETI IZANGO ZAITUGU GOGOAN
- ZURE FAMILIA -**



*Eskerrik asko zuen berotasuna
ematera hurbidu zaretan guztiori*

Ongietorriko familiek flyscha bisitatuz agurtu dute ikasturtea

Eguraldia lagun, Ongietorri programako 40 bat lagun Zumaiara abiatu ziren joan zen barixakuan. Bertako portuan zain zuten flyscha ikustera eramango zieten itsasontzia. Gidariaren azalpenei esker, gauza mordo ezagutu zituzten milioika urte dituen inguruari buruz. Euskal kostaldean sarri ageri da flysch deritzon egitura, baina Deba eta Zumaia artean da ikusgarrien. Gainera, Zumaiaiko flyscha nazioarteko erreferentzia geologikoa da. Itsasoan goiz pasa ederraz gozatu ondoren, pozarren itzuli ziren Eibarrera.

Euskarara eta euskal kulturara hurbiltzeko aukera eskaintzen die Ongietorri programak jatorri atzeritarra duten eibartarrei. Astean behin saioak eskaintzen zaizkie, doan, eta herriko hainbat auzotan eta ikasturtean zehar bestelako ekintzak ere egiten dituzte, hala nola Euskal Herria ezagutzeko irteerak edo euskal kultura eta ohituretan murgiltzeko ekintzak. Barixakukoa izan zen ikasturteko azkeneko jarduera eta udazkenean itzuliko da egitasmoa berriro.



"Euskarara eta euskal kulturara hurbiltzeko aukera eskaintzen die Ongietorri programak jatorri atzeritarra duten eibartarrei"

Gaur aurkeztuko dituzte datorren asteburuan egingo diren Amañako Jaiak

Uztailaren 11tik 13ra arteko asteburuak hartuko du 47. edizioko Amañako Jaien zatirik garrantzitsuenak. Hala ere, izango da hortik kanpoko ekitaldirik ere, hala nola gaur jokoan izango den dorreetako mus txapelketa eta hilaren 18an, barixakuan, Unzaga Plazan egingo duten jubilatuentzako ohiko bazkaria. Gaurko jai-aurkezpen ekitaldia eguerdiko 13:30ean izango da auzoko Laboral Kutxako bulegoan.

Aurkezpen horretan izango dira alkatea eta kultur zinegotzia, ekitaldiko protagonista bihurtuko diren beste hainbat lagunekin batera, azken horiek ondo merezitako errekonozimendua jasoko dutelarik. Bestalde, txupinazoa jaurtiko duen SD Eibar Fundazioko futbol egokituaren taldearekin batera, kontzertu itzelean parte hartuko duten Lendakaris Muertos eta Modus Operandi taldeek, herri-bazkaria, umeen eta helduen danborradak, eta Puro Relajo eta Gora Herria taldeen emanaldiek hartuko dute aurtengo Amañako Jaien pisu nagusia.

Uztailaren 11n, barixakuan, 18:00etan umeen danborradakoek Ego Gain gerontologia zentroaren aurrean joko duten piezekin hasiko da egitaraua. Handik ordubetera, 19:00etan, jai hasierako txupinazoa botako dute, lehen esan bezala, SD Eibar Fundazioko futbol egokituaren taldekoek eta, jarraian, umeen danborrada egingo da, Ermuko Iru-litxa txarangakoek lagunduta.

Behin 20:30era helduta, hor hasiko da musika giroan nagusituko den gaualde: Eibarko Mugi Panderoa taldearen erromeriarekin abiatuko da eta, jarraian, kontzertu itzela etorriko da, Modus Operandi eta Lendakaris Muertos talde entzutetsuekin. Afari antzerakoa egiteko aukera ere izango da, bertako txosnan ogitarteko eta pintxo zerbitzua egingo baita.



lazko jaien aurkezpena, txupinazoa jaurti zuen Ana Ramos kazetaria tarteko zela.

Hilaren 12an, zapatuan, goizetik hasiko da prestatutako egitaraua eta, horrela, 10:00etatik 14:30era arte Artisautza Azoka egingo dute Amañako plazan. Horren amaieran paella protagonista duen ohiko herri-bazkariaren ordura iritsiko gara. Bazkalostea atzean lagata, 18:45ean helduen danborrada irtengo da Amañako dorreetatik, honakoan ere Ermuko Iru-litxa txarangakoek lagunduta.

20:30ean parrilladaren hitzordua helduko da eta bertan saiheskia, txorizoa, oilasko-hegalak eta bar eskainiko dira. Sabela giro eta martxa onean betetzeko, ordu berean hasiko da Skapaie elektro-txaranga ingurunea girotzen, gaueko 24:00ak arte. Hortik aurrerakoa Gora Herria taldeak eskainiko duen berbenaren kontu joango da.

Eta 13an, domekan, eguerdiko 12:00etan txorizo-pintxoak hasiko dira banatzen, doan gainera.

SD Eibar Fundazioko futbol egokituaren taldekoek botako dute hilaren 11n jaietako txupinazoa

Horko egitarau nagusia arratsaldean garatuko da, 16:30etik aurrera umeek jolasteko martxan egongo diren gaztelu puzgarrien eta apararren-jaiaren eskutik. 18:30ean sabela betetzeko aukera bikoitza izango dugu Amañan: alde batek, umeentzat prestatuko duten txokolate-jana eta gailatekin; eta, bestetik, euro batean salgai jarriko diren txorizo-ogitartekoek bitartez. Handik gutxira abiatuko da Puro Relajo Euskal Herriko talde onenatarikoen kontzertua, 19:15ean hasiko baitira jotzen.



Garaguneko neska-mutilek ere hartu dituzte oporrak

Goyeneche Fundazioaren Garagunerako Untzaga Gizarte Zentrotik antolatzen zaizkien jardueretan oporrak iritsi ziren ekainaren amaieran eta, ondo amaitzeko, luntxa egin zuten parte-hartzaileek, begirale eta boluntarioekin batera. Untzaga gizarte zentrotik azaldu dutenez, “ostegun goizetan Izarbideko boluntarioekin batera informatika saioez gain, lehen sorospenei eta BBBei buruzko tailer praktiko bat antolatu zen, eta desfibriladorea erabiltzen ere irakatsi zitzaizen”. Jardueren arrakasta eta elkarlan aberasgarria ikusita, udatik bueltan elkarrekin gauza gehiago egingo dituztela esan dute.



Jaiak eta aldarrikapenak harrotasunez bat egin zuten

Ekainaren 28a Nazioarteko LGTBIQ+ Harrotasunaren Eguna zela ospatzeko, Udalak egitarau berezia antolatu zuen zaturako: goizean txapa-tailerra egin zen Untzagan, eta jarraian ortzadarraren koloreak dituen bandera igo zuten. Eta gauean, berriz, Albina & Divina drag bikote artistikoak jaiak eta aldarrikapena uztartu zituen bere ikuskizunean (argazkia: Eibarko Udala).



Kaleetan Kantuz Galizia eta Portugalen egon da abesten

Ekainaren 26ko gauerdian irten ziren Galizia alde-rra Kaleetan Kantuz abesbatzako kideak: “Goizeko 09:00etan ailegatu ginen A Guardara. Gosaldu, maletak desegin eta, atseden pixka bat hartu ondoren, entsegu orokorra egin eta kalera irten ginen, abestera. Herriko jendeak oso harrera beroa egin zigun. Zapatu goizean, gosaldu eta gero, Portugalera, Vilanova de Cerveirara joan ginen. Bertan azoka garrantzitsua zegoen eta kalejiran ibili ginen, bi gaiterok lagunduta. Presidenteordeak harrera egin zigun, eta kalean kantuan aritzeagatik eskerrak eman zizkigun, han ez dagoelako horretarako ohiturarik. Handik Santa Teclara joan ginen, eta ondoren A Guardara itzuli ginen. Domeka goizean Eibarrera itzultzeko bidaiari ekin genion, baina bidean Cudillerotik gertu bazkaldu genuen. Bidaia zoragarria izan da”.



Sanpedroak martxa betean

Beheko Tokia gizarte zentroaren eskutik, primeran ospatu dituzte Sanpedroak eta, aurtengo jaiak aspaldiko beroenak izan badira ere, dantzan aritzeko aukerarik ez dute galdu (argazkia: Eibarko Udala).



Banatu dituzte 'Argazkilaritza Maiatzean' rallyko sariak

Sanjuanak pasatuta, aurreko barixakuan banatu zituzten Argazkilaritza Maiatzean egitasmoaren baitan egin zen argazki-rallyko sariak: Ruben Caceres irundarra nagusitu zen koloretako sailean, eta Bakarne Elejalde eibartarra zuri-beltzezko paper sailean. Koloretako sailean Arbil Iciar sailkatu zen bigarren, Elena Marquez tolosarra izan zen hirugarren, Nahikari Barrosek jaso zuen Gazte saria eta, azkenik, sari soziala Javier Rodriguezen eskuetara joan zen. Zuri-beltzezko arloan, Fernando Retolaza eibartarra izan zen bigarren, Miren Amorrortu tolosarra hirugarren, eta sari soziala Virginia Arakistainek eraman zuen.



Manu Sanchezen argazkiak gaurtik aurrera ikusgai

Gaurtik hasita eta uztailaren 18ra bitartean, egunero bisitatu ahalko da Manu Sanchezen argazki-erakusketa Topalekun, 19:00etatik 21:00etara. Bere bi zaletasunik handienak, argazkilaritza eta hegan egitea, batu zituen argazkilari zaletu honek 2024ko apirilaren 11n, Bilbon gabarra atera zuten egunean. Milaka irudi hartu zituen, eta horietako batzuk ipini ditu ikusgai gaur zabalduko duen erakusketan.



Gidabaimenaren azterketa euskaraz gainditzea sarituko da

Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Autoeskolen Federakuntzak abian jarri duten Gidabaimenak euskaraz! ekimenaren bitartez, Eibarren Akebaik, Eibar Merkataritza Gune Irekiarekin elkarlanean, eta herriko autoeskolen laguntzarekin, saritu egingo ditu gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz gainditzeko hiru herritar, 100 euroko eresketa-bonua oparituz. Bonuak gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz gainditu eta eskaera aurkezten duten hiru lehenengo lagunei emango zaizkie. Hauek dira bonua jaso ahal izateko bete behar diren baldintzak: Eibarren erroldatuta egotea; gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz gainditzea; eta azterketa teorikoa 2025eko urtarrilaren 1a eta abenduaren 31 bitartean gainditzea. Informazio gehiagorako eibarrenakebai@gmail.com helbidera idatzi, edo 943 708426 / 688 854 965 telefonoetara deitu.

Danborradako arropak bueltatzea

Danborradako batzordeak komunikatu duenez, bai nagusien bai haurren danborradetan parte hartu dutenen arropa biltzeko azken eguna uztailaren 16a, eguaztena, izango da, 17:00etatik 20:00etara, Bittor Sarasketa kaleko entsegu lokaletan (Beistegi eraikinean). Partehartzaile guztiei danborradarako laga zitzaizkien jantziak mesedez egun horretarako bueltatzeko eskatu dute.



Lehenengoa izan zara hondartzara ailegatzen, baina ondoren lo hartu duzu eta, esnatzean, milaka lagunoz inguratuta zaude. Itsasoan sartu-irtena egiteko ordua heldu zaizu, baina zelan iritsi toldoz osatutako labirinto honetan?



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

		3		4	5
5			1		
	8	2	5	3	1
	1		2	6	5
5					8
3	6	5		7	
1	9	7	6	2	
		1			9
2	5		3		

1	2	3	4	5	6	7	8	9
2	3	4	5	6	7	8	9	1
3	4	5	6	7	8	9	1	2
4	5	6	7	8	9	1	2	3
5	6	7	8	9	1	2	3	4
6	7	8	9	1	2	3	4	5
7	8	9	1	2	3	4	5	6
8	9	1	2	3	4	5	6	7
9	1	2	3	4	5	6	7	8

soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

				3	6	1		
2	1			7	4			
	3		8	4				
		9				3	2	
8							4	
7	2				5			
			2	8		5		
		4	3				2	1
5	2	1						

**S
U
D
O
K
U**

soluzioa

1	2	3	4	5	6	7	8	9
2	3	4	5	6	7	8	9	1
3	4	5	6	7	8	9	1	2
4	5	6	7	8	9	1	2	3
5	6	7	8	9	1	2	3	4
6	7	8	9	1	2	3	4	5
7	8	9	1	2	3	4	5	6
8	9	1	2	3	4	5	6	7
9	1	2	3	4	5	6	7	8

Uztailak 4/10

BARIXAKUA 4

MUS TXAPELKETA

22:30 Mus Relámpago modalitatean. 20 euro bi-koteko. Sariak aurreneko laurentzat. Amañako jaien barruan.

DOMEKA 6

BISITA GIDATUA

11:00/14:00 Gerrako Fronteko bisita gidatua, euskaraz (aurretik izena eman dutenentzat). Gerra Zibileko Interpretazio Zentroa (Arrate).

MUSIKA

20:00 Eibarsax saxofoi jaialdia: "A fragment of Earth still open to listen" (Catarina Paiva eta Xabier Oruesagasti). Portalea.



ASTELEHENA 7

MUSIKA

20:00 Eibarsax saxofoi jaialdia: Xavier Larssonen kontzertua. Azitain (parrokia).



MARTITZENA 8

MUSIKA

20:00 Eibarsax saxofoi jaialdia: "Presencia lirica", Juana Palopen kontzertua. Azitain (parrokia).



EGUAZTENA 9

MUSIKA

20:00 Eibarsax saxofoi jaialdia: Sara Zazoren errezialdia. Portalea (erakusketa aretoa).



EGUENA 10

MUSIKA

20:00 Eibarsax saxofoi jaialdia: "El arte de la sonata", Arno Bornkampen kontzertua. Azitain.



Eskualdeko Agenda

DEBA

– 5an (ZAPATUA)

13:30 BISITA GIDATUA

Debatik Zumaiaara itsasontzian (pantalanetik)



13:30 UDAKO KONTZERTUA

Aitzuri abesbatza (Kultur Elkartea plazan)



20:00 FLYSCH ORGANOIA

Nazioarteko Zikloa (Santa Maria elizan)



– 6an (DOMEKA)

09:00 AZOKA SOLIDARIOA

(Udaletxeko arkupeetan)

ERAKUSKETAK

Uztailaren 18ra arte:

- **MANU SANCHEZ-en argazkiak.** (Portalea).

Irailaren 28ra arte:

- **"ACHA HERRAMIENTAS S.L. 85 URTEURRENA".** (Armagintzaren Museoa).



ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **5ean:** 17:00, 19:45, 22:30
- **6an:** 17:00, 20:00
- **7an:** 19:30

“Algo le pasa a mi yerno”
KOMEDIA



2024 / Frantzia / 91'
Zuzendaria: Arnaud Lemort
Aktoreak: Christian Clavier,
Baptiste Lecaplain, Claire Chust
Familia arteko erlazioak

2 ARETOA

- **5ean:** 17:00, 19:45, 22:30
- **6an:** 17:00, 20:00
- **7an:** 19:30

“Cómo entrenar a tu dragón”
KOMEDIA



2025 / AEB / 125'
Zuzendaria: Dean DeBlois
Aktoreak: Mason Thames,
Gerard Butler, Nico Parker
Abenturak / Herensugeak

ANTZOKIA

- **5ean:** 17:00, 22:00
- **6an:** 16:30, 20:00
- **7an:** 19:30

“F1. La película”
AKZIOA



2025 / AEB / 155'
Zuzendaria: Joseph Kosinski
Aktoreak: Brad Pitt, Damson Idris,
Javier Bardem, Kerry Condon
Drama / Automobilismoa



HAMAIKANPER LEHIAKETA MARTXAN DA!

EMAN IZENA ETA AURKEZTU ZURE FURGONETA

EZ ZARA PROFESIONALA IZAN BEHAR!
SORMENA ETA GOGOA BESTERIK EZ!

HAMAIKANPER

Eskaneatu QRa eta parte hartu!

www.hamaika.eus/saiok/hamaikanper

hamaika

943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak, **PERU** dibertigarri xori! Domekan 3 urte egingo dozuz eta. Famelixarekin ospatu eta barriak egingo dittugu.



Zorionak, **AUKAN**, ekaiñaren 30ian 5 urte bete zenuzaten eta! Infinito maite zaittugu, txapeldun!!



Zorionak, **ASIER!!** 5 urte bete dozuz gaur!! Munduko onena opa detsugu! Besarkada haundi bat etxekuen partez!



Zorionaak, **JOK!** Hillaren 2xan, 45 urtetxo. Barryk, zeruko izarrik politenak, eta zure Titok zorionik izugarri xena opa detsugu.



Zorionak, tia **SILBIA** (hillaren 1ian 50 urte) eta **LUKEN** (datorren martitzen 10 urte). Ondo ondo ospatu! Laztan haundi bana famelixa eta lagun partez.



Zorionak, **DANEL** (eguazten 3 urte bete zenuzaten, mutil haundi); eta ongi etorri, **JON** (ekaiñaren 19xan jaixo ziñan eta). Pilla pill maite zaittuegu! Musu haundi bat famelixa guztiaren partez!

ek!

Zure publizitatea herriko aldizkarian

688 621 535

publizitatea@etakitto.eus

Izadi

LORADENDA

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE NATURAL ETA LEHORRAK
EZKONTZETARAKO LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK

Enkarguak ebero

Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Eteak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Baserría salga Itziarko Endoia auzoan. 330 m². Oso ondo komunikatuta. Bista paregabeak. 632252602.

1.2. Errentan

- Ez galdu Donostiako Aste Nagusia, gozatu giro apartaz! Atikoa alokagai terraza eta itsas bistekin, abuztuaren 8tik 24ra. Ondarreta hondartzatik oso gertu. 3 logela, bainugela eta egongela-jangela-sukaldea. Dena berriztuta (wifia). Igogai-luarekin. 688840712.
- Deban etxebizitza alokagai. Urte osorako, familia edo pareja gazte formalaren bila. 3 logela, 2 bainu. Irixora begira. 750 euro hilero. Epe luzerako. 688714605.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baserrian lan egiteko eta garbiketarako. Baita asteburuetan ere. 633511066.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin) eta garbiketak egiteko. Orduka. 667060292.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauz eta asteburuetan ere. 631425686.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. 613667234.
- Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. 613949845.
- Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko, nagusiak zaintzeko (titulazioarekin). 633101852.

- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. 614433414.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. 673538021.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta beste edozein lanetarako. 633832418.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Orduka edota asteburuetan. 635944602.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Orduka edota asteburuetan. 642044618.
- Emakumea eskaintzen da pertsonak zaintzeko. Esperientzia. 618431466.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko Eibarren. Interna. 642431753.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko Eibarren. Interna. 613287661.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Interna. 602567339.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Interna. 613826542.
- Mutila eskaintzen da igeltsero, pintore eta informatikari bezala. 613842576..

4.2. Langile bila

- Emakumea hartuko genuke nagusia zaintzeko. Interna. 688611124. Raquel.
- Eibarko erdiguneko tabernan eskarmentudun zerbitzaria hartuko genuke. 943558728.

- Higienista/auxiliarra behar da Ermuko hortz klinika batean. Haurdunaldiko baja baten ordezkapena egiteko. Uztailetik abendura, lanaldi osorako. Bidali CV: hortzklínika.4@gmail.com
- Ipuruako Jubiletzeko taberna eramateko jendea behar da. 688684509.
- Emakumea behar da neskatila bat zaintzeko irailetik aurrera, lanaldi partzialerako. 669780187.
- Odontologo orokorra behar da Ermuko hortz klinika batean, astean jardun bat edo birako. Bidali CV: hortzklínika.4@gmail.com

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Neska eskaintzen da ingeles klaseak emateko. Sei urteko ikasketekin. Umeak ere zainduko litzuzke. 615701749.
- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.



EIBARKO EKINTZAIETZA PROGRAMA

ZURE ENPRESA-IDEIA ZEHAZTEN LAGUNTZEN DIZUGU

- + FORMAZIO espezializatuko 32 ordu
- + AHOLKULARITZA adituko 80 ordu
- + TUTORETZA pertsonalizatuko 20 ordu

**IZENA EMATEKO AZKEN
EGUNA: UZTAILAK 22**

**EMAN
IZENA!**





Errekatxu Berri

BIZIGUNEA



Udako argiaren zalea zara?

Goza ezazu Errekatxu Berriko terrazatik.

Hurbildu Errekatxu Berrira eta aukeratu zure etxea 305.000€-tik hasita.



Informa zaitez
www.loiola.com
900 102 220

 **Loiola**